

Donostia, 2019ko urriaren18a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, HARRI BERRI OLETA IKASTETXEKO LANEKIKO GOBERNUAK DITUEN AURREIKUSPENEI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98.artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, HARRI BERRI OLETA IKASTETXEKO LANEKIKO GOBERNUAK DITUEN AURREIKUSPENEI BURUZKOA, osoko bilkuran azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Harri Berri Oleta eskola publikoko lanak udaran hasi ziren, ikasturte berria hastean ahalik eta eragin txikiena izan zezaten hezkuntza komunitatean eta batez ere haur txikienen gain. Baina lan hauek luze jo dute, eta eragina handia izaten ari dira ikasleen eskola orduetan, txikienen jangelarako sarreran etabar.

Harri Berriko hezkuntza komunitateak bere harridura azaldu zuen zegoen egoerarekiko, eta eskola zuzendaritzak hala eskatuta bilera bat egin zen udaleko ordezkariak batekin konponbideak bilatzeko. Bertan, harrigarria izan arren, udal gobernuak ez zuen eragina gutxitzeko planik jarri mahai gainean, eta ikastetxeko ordezkariak eman behar izan zituzten alternatiba horiek. Udalak ikastetxeko ordezkariak proposatutako alternatibak onartu besterik ez zuen egin.

Guzti honen ondoren erabaki zuen gobernuak tokiko gobernu batzarrean lan hauek aurrera eramaten ari zen enpresari atzerapenagatik isuna ezartzea.

Komsioan gai honengatik galdetuta, zinegotzi ordezkariak aditzera eman zigun lanak hilabeteko epean bukatuko direla.

Azaldutako guztiagatik, ikus dezakegu ikastetxeko lanen kudeaketan inprobisazioa nabaria dela udal gobernuaren aldetik. Etorkizunean inprobisaziotik atera eta lan hauen planifikazioa, eta ondorioz, ikasle, haur eta ehezkuntza komunitateei ematen zaien kalitate maila nabarmen hobetu beharra dago.

Hori guztia dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA, HARRI BERRI OLETA IKASTETXEKO LANEKIKO GOBERNUAK DITUEN
AURREIKUSPENEI BURUZKOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari halako arazoak gertatzean eskola komunitateari alternatiba eta epe berriak dituzten planak proposa diezazkiela.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari hezkuntza komunitatearekin Interlokuzio arina ezar dezala.
3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Harri Berri Oleta ikastetxe publikoko lanak hatzartutako data berrirako bete ditzala.
4. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari ikastetxe publikoetan gauzatuko diren lan handietan hasierako epeak betearazi ditzala.

Sinatua: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea